


2010ean Euskal AEko Herri administrazioek 2.752 milioi euroko defizita izan zuten

BPGrekiko %4,2 izan zen, aurreko urtean baino 1,3 puntu gutxiago

Euskal AEko herri administrazioen (euskal administrazioak, estatuarena eta Gizarte segurantzak) defizita 2.752 milioikoa izan zen 2010ean nazio-kontabilitatearen terminoetan, BPGren %4,2, Eustaten datuen arabera.

Negatiboa izanik ere, saldoak hobera egin zuen aurreko urtearen aldean, 1,3 puntuz. Inguruko herrialdeetako joera berbera da. Estatuaren osotasunean defizita 2009ko %11,2tik 2010eko %9,3ra jaitsi zen, eta 27-EBn %6,9tik %6,5era.

1- grafikoa: herri administrazioen finantza-gaitasunaren (+) edo finantza-beharraren (-) bilakaera (BPGren %)



Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen kontu ekonomikoak
EUROSTAT

Euskal AEko herri administrazioen finantza-beharren murrizketa ez-finantzaketako baliabideak gehiago hazi zirelako ez-finantzaketako enpleguak baino izan zen. Baliabideak %7,6 hazi ziren 2009ren aldean eta enpleguak %3,4.

Ez-finantzaketako baliabideen artean azpimarratzekoa da pisutsuenen hobekuntza aurreko urtearen aldean. Ekoizpen eta inportazioen gainekoak, guztirakoaren %28,9, %6,6 hazi ziren; errenta eta ondarearen gainekoak, baliabideen %23,5, %3,2 jaitsi ziren, alegia 2009an (%17,7) baino askoz gutxiago; gizarte-kotizazioak, baliabideen %32,6, %2,1 hazi ziren.

Ez-finantzeta enpleguetan, gizarte-prestazio eta transferentziak, enpleguen %42,5, %4,7 hazi ziren 2009ren aldean; 2009an BPGren %17,0 ziren eta 2010ean %17,5. Enpleguetako pisurik handienetako beste kontu-sail bat, Soldatuen ordainketa eta Bitarteko kontsumoa, %2 inguru hazi baziren ere 2009ren aldean, urte arteko hazkunderik txikiena izan zuten 2000. urteaz geroztik.

Instituzioak aztertuz gero, estatuaren erregionalizatutako administrazioak bakarrik izan zuen saldo positiboa 2010ean, 255 milioi. Erregionalizatutako gizarte segurantzaren saldo negatiboa okerrera egin du, 2009ko 554 milioitik 2010eko 860 milioira; izan ere ez-finantzeta enpleguak proportzio handiagoan hazi ziren ez-finantzeta baliabideak baino: gizarte kotizazioak %2,1 hazi ziren eta gizarte prestazioak %5,2.

1. taula: Euskal AEko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantza-gaitasuna (+) edo finantza-beharra (-) 2010 (milaka euro)

	1.- Finantzazkoak ez diren baliabideak	2.- Finantzazkoak ez diren erabilerak	3.- Aurrezki garbia	4.- Finantzatzeko ahal. (+) eta beh. (-)
Herri administrazioak	24.134.486	26.886.621	-677.436	-2.752.135
EAEn dauden Estatuko administrazioa+ Gizarte Segurantza	10.333.483	10.938.028	-298.471	-604.545
EAEn dagoen Estatuko administrazioa	2.459.504	2.204.379	505.748	255.125
EAEn dagoen Gizarte Segurantza (**)	8.072.310	8.931.980	-804.219	-859.670
EAEko administrazioak (*)	16.202.140	18.349.730	-378.965	-2.147.590
Eusko Jaurlaritza	9.273.496	10.879.009	-570.180	-1.605.513
Araba / Álava	2.594.963	2.681.280	-211.113	-86.316
Bizkaia	8.050.720	8.187.708	367.077	-136.988
Gipuzkoa	5.036.764	5.355.537	35.251	-318.773

Ikusi ohar metodologikoa

(*) Eusko Jaurlaritzaren barruan honakoak sartzen dira: adm. erak. autonomoak, EHU, Osakidetza era sozietate publiko batzuk Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren barruan honakoak sartzen dira: foru aldundiak eta horien adm. erak. autonomoak era sozietate publiko batzuk; eta Toki erakundeak

(**) Gizarte Segurantzaren barruan daude: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, Itsasoko Gizarte Institutua, INEM-Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoa, LI mutuak, LG eta Soldatak Bermatzeko Fonda (FOGASA).

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen kontu ekonomikoak

Euskal administrazioetan finantzazio-beharra 2.148 milioikoa izan zen 2010ean (BPGren %3,3); 2009an 3.302 milioi (BPGren %5,1).

Instituzio guztiek murriztu zuten finantzazio beharra: Eusko Jaurlaritzaren finantzazio beharra 2009ko 2.545 milioietatik 2010eko 1.606etara joan da. Arabako foru eta udal administrazioetan 174 milioitik 86etara; Bizkaian 2009ko 208 milioi negatiboetatik 2010eko 137etara; Gipuzkoan 376 negatiboetatik 319etara.

2. taula: Herri administrazioen parte-hartzea azken eskarian Euskal AE (milaka euro) 2005-2010

	2005	%	2006	%	2007	%	2008	%	2009	%	2010	%
Azken kontsumoko gastua	43.691.686	100,0	47.139.691	100,0	50.415.485	100,0	52.390.003	100,0	51.674.108	100,0	52.842.017	100,0
Herri adm.en azken kontsumoko gastua	8.475.920	19,4	9.131.861	19,4	9.995.041	19,8	10.978.096	21,0	11.653.562	22,6	11.726.425	22,2
Kapital-eraketa gordina	16.422.809	100,0	17.993.556	100,0	19.457.387	100,0	19.516.294	100,0	16.129.094	100,0	15.371.757	100,0
Herri adm.en kapital-eraketa gordina	1.506.473	9,2	1.656.706	9,2	1.880.579	9,6	2.065.866	10,6	2.499.786	15,5	2.476.320	16,1
Barne-eskaria	60.114.495	100,0	65.133.247	100,0	69.872.872	100,0	71.906.297	100,0	67.803.202	100,0	68.213.774	100,0
Barne-eskari publikoa	9.982.393	16,6	10.788.567	16,6	11.875.403	17,0	13.043.962	18,1	14.153.348	20,9	14.202.745	20,8

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen kontu ekonomikoak

Barne-eskari publikoaren parte-hartzea Euskal AEko barne-eskari osoan mantendu egin da 2010ean, %20,8.

Herri administrazioen parte-hartzea Euskal AEko azken kontsumoaren gastuan pittin bat jaitsi da; 2009an %22,6 izan zen, 2010ean %22,2.

Herri administrazioen Kapital Eraketa Gordinaren pisua Euskal AEko ekonomian hazi egin da 2009ko %15,5etik 2010eko %16,1era. Inbertsioen %95,4 euskal administrazioek egin zuten, gainerako %4,6 estatuko administrazio erregionalizatuak.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Clara Ramos Hernández

Tel.: +34-945-01 75 97 Faxe: +34-945-01 75 01

Herri administrazioen kontu ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago

Herri administrazioen kontu ekonomikoen gaineko datu-bankua